

1. BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure enpresak kotxe elektrikoetan erabiltzeko bateria aldagarriak fabrikatzen ditu. Gure helburu nagusia alde batetik, ingurumena babestea izango da eta bestetik, kotxe elektrikoek erabiltzaileei bateria merkeagoak eta aldaketa sistema ezin erosoagoa eskaintzea.

Beste auto elektrikoekin konparatuz, gure bateriak daramaten autoek abantaila handiak izango dituzte. Gure enpresak erabiliko dituen gasolindegia bereziek, elektrolinerek, zerbitzu berri eta bakarra eskainiko diote bezeroei.

Gaur egungo auto elektrikoek arazo nabarmenena, kargatzeko behar duten denbora da. Horrek, bidaiak luzeak egitea ekiditzen du, bateriak kargatzeko hainbat ordu behar direlako. Beraz, gure bateriek arintasuna eta erosotasuna eskainiko dute. Bateria amaitzean, beste bateria batengatik aldatu ahal izango dute gure bezeroek. Autoak ez dira entxufatu behar izango eta horrela denbora asko aurreztuko da. Gainera, azken denboraldian, kutsadura maila izugarri igo da hirietan batez ere. Horregatik, gure enpresak arazo hori leuntzeko alternatiba zoragarri eta berritzaile bat aurkezten du, gure bateriek ingurumenari kalte oso txikia egiten diotelako gainerako autoekin aldentuz.

Gure Elektrolineretan, zure bateria kargatzen utzi eta beste bat hartu ahal izango duzu. Bateria hori kargatzen geratuko da eta, kargatzen denean, beste batek hartuko du berea utziz. Horretarako, bezeroek hilabetero bono bat ordaindu beharko digute eta horrela, autoen bateria nahi aldiz aldatu ahal izango dute.

Hala ere, gure proiektua egiterakoan 2 galdera nagusi sortu dira: dirua lortzeko bidea zein izango den eta nolako kotxeek erabiliko duten gure bateria. Gure proiektua, batez ere, sarritan epe luzeko bidaiak egiten dituztenei dago zuzenduta, hauek bidaiak ahalik eta denbora laburrean egiten saiatzen direlako.

Gure produktuak, gainerakoekin aldentuz (hau da, lehian daudenekin) ezaugarri hauek erakutsiko ditu:

- ✓ Berritasuna: Gaur egungo inork merkatura atera ez duena da, hortaz, hasieran lehia gutxi izango dugula uste dugu.
- ✓ Erraztasuna: Erosotasuna eskaintzen diogu bezeroari.
- ✓ Eskuragarritasuna: Espainiako hainbat gasolindegiekin lan egingo dugu.
- ✓ Diseinua: Gure bateriak punta-puntako teknologia erabiliko dute.

Beraz, laburbilduz, gure bateriak oso berritzaileak izango dira, ingurumenari kalterik eragingo ez diotenak. Gainera, beste inork ez du honelakorik eskaintzen gaur egungo merkatuan.